

SANTA MARIA ELIZA

IGLESIA DE SANTA MARÍA



Santa María parroki eliza monumentu nazionala da 1931z geroztik eta altxor kultural handienetako bat Euskal Kostaldeko Geoparkearen eta Euskadiko arkitektura erlijiosoaren arloetan. Kareharrizko eta hareharrizko harriz eraiki zuten XV. mendean, XIV. mendeko hasierako eliza baten gainean; XVI. mendean, handitu egin zuten; eta, XVII. mendean, amaitu.

Tenplua bertako bizilagunek finantzatu zuten, eta horregatik dute harrotasunez eta, aldi berean, diskrezioz ipinia herriko armaria tenpluaren fatxadetan. Tenplua eraiki zuten herria garairik oparoenen zegoenean, hau da, bere portutik Ingalaterra, Frantzia, Flandes eta Europako beste herrialde batzuetara esportatzen ziren Gaztelako artilearen eta produktu manufakturatuen trafikoa gaineko zergei esker herria aberastu zen garaian. Eta zer esan bertako familiek Terranova antolatzen zituzten bale kanpainenetik lortutako irabaziez.

Gotiko garaikoak dira portada, alboetako kaperak, triforioaren zati txiki bat eta klaustroa.

Portada

XV. mendean, eraiki egin zuten eta, XVII. mendean, polikromatu. Oinarrian, friso bat du, hamabi apostoluen figurekin, sei alde banatan, mainel batez zatitua dagoena, Salbatzailearen irudiarekin. Frisoak arkibolta batzuei eusten die, hain zuzen ere aingeru, ama birjina, martiri eta musikariaren figurez apaindutako arkiboltei. Tinpanoan, Ama Birjinaren bizitzari buruzko hainbat eszena daude.


Kapera gotikoak

Garai hartako familia aberatsek eraiki zituzten, merkataria eta nobleak guztiak. Sartu eta eskuinera San Pedroren eta San Antonen kaperak daude. San Pedrorenean, Fernando de Agirre lurperatu zuten, Felipe II.a erregearen arma ordaintzailea. San Antonen kaperan, berriz, Martín Ochoa de Sasiola, "Sasiola diruzaina", Gaztelako kondestablearen idazkaria.

Sartu eta ezkerrean Santo Domingoren, Juan Bataiatzailearen eta Andre María Errukizkoaren kaperak daude. Santo Domingorenean, Juan de Andonaegui dago lurperatuta, Felipe II.ak Vatikanon zuten enbaxadorea. Juan Bataiatzailearen kaperak, "La Hilandería" izenez ere ezaguna, Zubeltzutarrena zen. Zubeltzutarrek itsasontzi jabe inportanteak ziren, eta beren itsasontzietako bat, "Concepción Mayor", Itsas Armada Garaiezinari eman zuten. Azkenik, Irarrazabaltarren kaperak, duela gutxi arte Valparaisoko markesarena bezala ere ezagutu izan dena. Irarrazabaltarrak herriko familia zahar eta ahaltsuena zen, XVI. mendetik aurrera Txilen finkatu zena.



Klaustroa



Gipuzkoako zaharrena da. Badirudi 1499an hasi zirela eraikitzen. Obrak geldi eta etenekin egin ziren; berrogeita hamar urte iraun zuten. Gangaz estalitako lau pasabide ojibal ditu eta barruko patiora irekitzen da, 16 bao zorrotzen bidez. Iparraldeko pasabidearen leihateetan, XVI. mendean hasierako eta Errenazimenduko (1547) trazeria flamigerok txandakatzen dira. Barruko eta kanpoko laukien proportzioak 1'618ko koefizientea ematen du, "urrezko proportzioa" edo "Jainkoaren proportzioa" izenez ezagutzen dena.


Uste da obren zuzendaritza Juan Guas-en tailerlean hezitako euskal harginaren batek eramango zuela. Juan Guas Errege Katolikoaren arkitekto gogokoena zen.

Beste elementu interesgarri batzuk

Erretaula. Errenazentista-barrokoa eta Pedro de Alloitiz-ek egin zuten, 1663-1671 urteetan, baina urreztatutak eta pintura lanak Miguel de Brevillak egin zituen. Alboetako erretaulak Pedro de Alloitiz eta Matheo de Azpiazu egin zituzten, 1683-1686 urteetan.

Sakristia. Proiektua XVIII. mendean hasieran planteatu zen eta Lazaro de Lizardi gauzatu zuten, 1713-1714 urteetan. Altxariak Francisco de Iberok diseinatu zituen, 1770ean, eta Gipuzkoako rokoko estiloko ebanisteria lanik onenatzat hartzen da.

Organoa. G. Grenzing organogile maisuak egin zuten 2009an eta Gipuzkoako aipagarrienetako bat da, XXI. mendeko organogintzako eredu delarik.



La iglesia parroquial de Santa María, Monumento Nacional desde el año 1931, es una de las grandes joyas culturales del Geoparque de la Costa Vasca y de la arquitectura religiosa vasca. Construida con piedra caliza y de arenisca en el siglo XV, sobre una primitiva iglesia del siglo XIV, fue ampliada en el siglo XVI y concluida en el XVII.

La creación del templo en corrió a cuenta del vecindario, de ahí que la fachada principal del templo luzca con orgullo, pero con discreción, el escudo de la villa. El templo fue construido en el momento de mayor esplendor de la población: cuando los impuestos procedentes del tráfico de lana castellana y de productos manufacturados exportados a través de su puerto a Inglaterra, Francia, Flandes y otros países europeos contribuyeron a la enriquecimiento de la villa. Ni que decir de los beneficios procedentes de las sustanciosas campañas balleneras a Terranova, organizadas éstas por familias locales.

De la época gótica se conservan la portada, las capillas laterales, una mínima parte del triforio y el claustro.

La portada

Fue construida en el siglo XV y policromada en el XVII. Su base presenta un friso con figuras de los doce apóstoles, seis a cada lado, dividido por un parteluz con la imagen del Salvador. El friso sustenta un arcosol con arquivoltas decoradas con figuras de ángeles, vírgenes, mártires y músicos. El tímpano muestra varias escenas sobre la vida de la Virgen.

Las capillas góticas



Fueron construidas por familias adineradas de la época, importantes mercaderes y nobles. Entrando a la derecha, se sitúan las capillas de San Pedro y de San Antón. En la primera de ellas fue enterrado Fernando de Aguirre, Pagador de Armas del rey Felipe II. En la segunda fue enterrado Martín Ochoa de Sasiola, "el Tesorero Sasiola", secretario del Condestable de Castilla.

Entrando, a mano izquierda, se sitúan las capillas de Santo Domingo, de San Juan Bautista y la de la Misericordia. En la primera está enterrado don Juan de Andonaegui, secretario de Felipe II en la embajada Vaticana. La segunda, conocida también como de "La Hilandería", perteneció a los Zubeltzu, importantes navieros que aportaron una de sus naves, la "Concepción Mayor", a la Armada Invencible. Por último, la capilla de los Irarrazabal, hasta hace unos años conocida también como del marqués de Valparaíso, perteneció al linaje más antiguo y poderoso de la villa asentado en Chile desde el siglo XVI.

El claustro

Es el más antiguo de Gipuzkoa. Su construcción se inició al parecer en 1499 y el proceso de las obras fue lento y discontinuo, durante éstas cincuenta años. Consta de cuatro corredores ojivales abovedados y se abre al patio interior a través de 16 vanos apuntados. En los ventanales del corredor norte se alternan las tracerías flamígeras de principios del siglo XVI con las renacentistas de 1547. Las proporciones del cuadrilátero interior y exterior dan un coeficiente de 1'618, que se conoce como "proporción áurea" o "Divina proporción".

Se cree que la dirección de la obra pudo llevarla algún cantero vasco formado en el taller de Juan Guas (arquitecto favorito de los Reyes Católicos).

Otros elementos de interés

El retablo renacentista-barroco, fue realizado entre los años 1663 y 1671 por Pedro de Alloitiz, siendo Miguel de Brevilla el encargado de los dorados y pintura del mismo. Los retablos laterales fueron realizados entre 1683 y 1686 por Pedro de Alloitiz y Matheo de Azpiazu.

La sacristía. El proyecto se planteó a principios del siglo XVIII y la ejecución corrió a cargo de Lázaro de Lizardi, entre 1713 y 1714. El mobiliario fue diseñado por Francisco de Ibero en 1770 y está considerado como la obra cumbre de la ebanistería rococó guipuzcoana.

El órgano. Construido en 2009 por el maestro organero G. Grenzing, es uno de los más destacados de Gipuzkoa y modelo de construcción organero del siglo XXI.



Informazio gehiago
Para más información:

